

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2021/2022 ikasturtea

SEHASKA-KANTEN PRESENTZIA, ERABILERA ETA FUNTZIOAK HAUR HEZKUNTZAN

Ahozko tradizioaren transmisioaren garrantzia oinarri hartuta

Egilea: Miren Etxebarria Erauskin

Zuzendaria: Maitena Duhalde de Serra

Leioan, 2022ko maiatzaren 27an

AURKIBIDEA

Sarrera	3.or
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera.....	4.or
1.1. Ahozko tradizioa	4.or
1.2. Sehaska-kantak	5.or
1.2.1. Arloko egoera	6.or
1.2.2. Terminologia	6.or
1.2.3. Ezaugarriak	7.or
1.2.3.1. Literatura	7.or
1.2.3.2. Musika	9.or
1.2.4. Helduaren rola	10.or
1.2.5. Definizio berri bat.....	12.or
2. Metodologia	13.or
2.1. Lanaren aurrekariak	13.or
2.2. Datu bilketa	13.or
2.3. Gida eta web orria	13.or
3. Sehaska-kanten presentzia, erabilera eta funtzioak Haur Hezkuntzan.....	14.or
3.1 Galdetegi eta elkarrizketak.....	14.or
3.2 Emaitzen azterketa.....	15.or
4. Proposamena	18.or
4.1. Gida	19.or
4.2. Web orria.....	21.or
5. Ondorioak	21.or
6. Erreferentzia bibliografikoak.....	23.or
Eranskinak.....	26.or
I. Eranskina: sehaska-kanten metrikak eta konpasa.....	26.or
II. Eranskina: galdetegiko galderak.....	28.or
III.Eranskina: bakarkako elkarrizketetako galderak.....	30.or
IV.Eranskina: gida.....	32.or

SEHASKA-KANTEN PRESENTZIA, ERABILERA ETA FUNTZIOAK HAUR HEZKUNTZAN

Ahozko tradizioaren transmisioaren garrantzia oinarri hartuta

Miren Etxebarria Erauskin

UPV/EHU

Gaur egun ezagun zaizkigun sehaska-kantak ahozko tradizioaren transmisioari esker ditugu gure artean, baina transmisio hori hiltzear dago. Lan honetan, ahozko tradizioa eta sehaska-kantei buruz adituek diotena ikertu eta iritziak alderatu dira. Adituen iritziak osatzeko asmoz, sehaska-kanten definizio berri bat proposatu da. Behin hau eginda, eskoletan sehaska-kantek duten presentzia, erabilera eta funtzioa aztertu dira galdetegi eta bakarkako elkarrizketen bidez. Jasotako emaitzekin, behar bat identifikatu da, hots, irakasleek sehaska-kantak erabiltzeko duten material falta. Arazo horri erantzun bat emateko intentziorik, sehaska-kantak erabiltzeko informazioa eta materiala eskaini da gida eta web orri baten bidez, ahozko tradizioaren txingarrak luzaroan piztuta jarraitzeko helburuarekin.

sehaska-kanta, ahozko tradizioa, transmisioa, haur hezkuntza, eskola

Las canciones de cuna que hoy nos son familiares las tenemos entre nosotros gracias a la transmisión de la tradición oral, pero esa transmisión está a punto de morir. En este trabajo se ha investigado la tradición oral y se han contrastado las opiniones de distintos expertos sobre las canciones de cuna. Con el fin de completar las opiniones de los expertos, se ha propuesto una nueva definición de las canciones de cuna. Una vez realizado esto, se ha analizado la presencia, uso y función de las canciones de cuna en las escuelas a través de cuestionarios y entrevistas individuales. Con los resultados obtenidos se ha identificado una necesidad, la falta de material del profesorado para utilizar las canciones de cuna en el aula. Con la intención de dar una respuesta a este problema, se ha ofrecido información y material para el uso de canciones de cuna a través de una guía y una página web, con el objetivo de seguir mucho tiempo con la brasa de la tradición oral encendida.

canción de cuna, tradición oral, transmisión, educación infantil, escuela

Les berceuses que nous connaissons aujourd'hui sont le résultat de la transmission de notre tradition orale, mais cette transmission est sur le point de s'éteindre. Ce travail s'appuie sur l'état des lieux de la question ainsi que sur la comparaison des points de vue des experts au sujet de la tradition orale et des berceuses. Afin de compléter ces opinions, une nouvelle définition des berceuses est proposée. Ensuite, la présence, l'utilisation ainsi que la fonction des berceuses dans les écoles sont examinées au moyen de questionnaires et d'entretiens individuels. Grâce aux résultats obtenus, un besoin a été identifié, à savoir le manque de matériel permettant aux enseignant.e.s d'utiliser les berceuses. Dans le but d'apporter une réponse à ce manque, des informations et du matériel sur l'utilisation des berceuses est fournis à travers un guide et un site Internet de manière à entretenir encore longtemps les braises de la tradition orale.

berceuse, tradition orale, transmission, éducation de la petite enfance, école

Sarrera

Hein batean, ahozko tradizioari eta horrek izandako transmisioari esker ditugu gaur egun gure artean hainbat kontakizun, ipuin eta abesti besteak beste. Transmisioaren bidez jasotako altxor horien artean ditugu haurrak lokartzeko betidanik erabili izan diren sehaska-kantak.

Bai ahozko tradizioaren inguruan, bai sehaska-kanten inguruan gutxi ikertu izan da, hori dela eta, lan honen bitartez gai hauek duten ikerketaren beharrezana ikustera eman nahi da. Kaltzakortak aipatzen duenez “Gaur egunerako zenbait generoren ahozko transmisioa etenda dago” (Elustondo, 2013, 10. or). Hau horrela, lan honetan, ahozko tradizioaren eta sehaska-kanten egoera ikertuko da.

Honako hauek izango dira lana aurrera eramateko helburuak, lehenengo eta behin, ahozko tradizioaren eta sehaska kanten inguruan adituek diotena ikertu eta alderatzea. Hori horrela, adituek diotena osatzeko asmoz, sehaska-kanten definizio berri bat proposatu da. Behin hori eginda, sehaska-kantek eskoletan duten presentzia, erabilera eta funtzioak aztertu dira, galdetegi eta elkarrizketen laguntzaz. Fase honetan, lortutako emaitzen arabera, datuek ikustera ematen duten beharra identifikatu eta horri erantzuna ematea izango da funtsean helbururik garrantzitsuenetako bat.

Helburu hauek lortzeko, metodologia zehatz bat eramango da aurrera hain zuzen ere, aurrean aipatutako ahozko-tradizioaren eta sehaska-kanten inguruko hurbilketa teorikoa egingo da, adituek gai honi buruz duten iritzia aztertuko da eta hori kontuan hartuz, definizio berri bat proposatuko da. Ostean, sehaska-kantek eskoletan duten presentzia, erabilera eta funtzioak aztertzeko galdetegi bat prestatu da sei ikastetxetako irakasleek erantzuteko intentzioz. Behin hori eginda, elkarrizketak egiteko beharra ikusi da, lortutako emaitzak sakontzeko gogoz. Lortutako emaitzek, behar bat utzi dute agerian, hain zuzen ere, irakasleek ez dituztela sehaska-kantak nahi beste erabiltzen material faltagatik. Hori horrela, sehaska-kantei buruzko informazio laburra eta erabiltzeko materiala biltzen dituen gida bat sortu da ikastetxeetan zabaltzeko asmoarekin. Zabaltze hori errazago egiteko, web orrialde bat ere sortu da, gidan agertzen den informazio berbera eskaintzen duena.

Oinarrian, sehaska-kanten erabileraren bitartez, haurrenganako eta loaldian lagunduko duen helduarekiko hainbat onura ekar ditzakeela ikusi ahalko da, baita beraien arteko lotura hori sendotzen dela. Sehaska-kantak erabiliz, ahozko-tradizioaren transmisioa emango litzateke eta horren bitartez, hiltzear dagoen genero hau suspertu.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

1.1. Ahozko tradizioa

Euskal Herriaren historian, asko izan dira euskal literatura aztertu dutenak. Horren adibide ditugu Ibon Sarasola, *Euskal literaturaren historia* (1971) lanarekin, Luis Villasante, *Historia de la literatura vasca* (1961) lanarekin, Koldo Mitxelena, *Historia de la literatura vasca* (1960) liburuarekin eta Nikolas Ormaetxea “Orixe”, *Euskal Esnalea* (1927) aldizkariko "Euskal Literatura'ren atze edo edesti laburra" artikuluarekin. Aipatutako hauek, euskal literaturaren ikerlariak izan dira luzaroan, baina ez dute guztiek ahozko literatura ikertu. Ahozkoaren inguruan ikertu dutenak gutxi batzuk dira, nahiz eta tartean badauden aipatutako Koldo Mitxelena eta Nikolas Ormaetxea “Orixe”.

Hizkuntzaren historiaren garapenean, ahozko tradizioa gizakiari datxekiola eta munduan zehar sakabanatuta dauden gizarteetan presente dagoela egiaztatu eta adierazi izan da. Hizkuntza bakoitza komunitate jakin baten bizi-baldintzen arabera asimilatzen da, hizkuntza arbasoen herentzia baita, eta horrek ezinbestean markatzen du herri baten nortasuna (Ramírez, 2012, 130. or).

Hizkuntzaren bidez, kultura bateko kideen arteko loturak sortzen dira, kultura horrekin komunikatzen eta identifikatzen baitira kultura horretako kide gisa. Sozializazio-prozesuetan, kultura hizkuntzaren bidez kohesionatzen da, haren erabilerak komunitate bateko kideek partekatzen dituzten ezagutzak identifikatzen dituelarik (Ibidem, 130. or). Autore honek aipatzen duen legez, bere haurtzaroan, “etxeetan egiten zen euskararen eta tradizioaren transmisioa, eta transmisio horrek ahozkotetasuna zuen eusgarri” (Lertxundi, 1996, 862. or).

Ramírezek dioenez, ahozko tradizioa antzinatik existitu izan da eta askotan, idatzizko erregistrorik gabeko gizarteek beren historia kulturala kontserbatzeko eta transmititzeko baliatu ahal izan duten bide bakarra izan da (2012, 131. or). Ahozko tradizioko

azterlanen garapen historikoa berreraikiz, zenbait adituk ahozko tradizioak inoiz fidagarriak izan ez direla eta ematen duten informazioak migrazioen eta kultur hedapenaren lekukotza gisa baino inolako baliorik ez duela baieztatzen duten bitartean, etnologoek uste dute ahozko tradizioak iturri historiko baliotsuak direla, antropologiak eta hizkuntza-probak bat datozelako baldintzarekin (Vasina, 1968, apud Ramírez, 2012).

Igerabideren (2003, 39. or) hitzetan, ahozko tradizioa hiltzear dago, ez euskal tradizioa soilik, baizik eta ahozko tradizio guztia. Honen zergatia, mundu modernoa eta mundu horretako komunikabideak direla azpimarratzen du. Aipatzen duenez, badaude oraindik pertsona batzuk, tradizioari jarraiki, ahozko tradizioaren altxorra piztuta mantentzen dutenak, ahozko tradizio hori lantzeak haurrengan duen onuraz ohartu baitira eta era berean, hauek “hizkuntzaren sena lantzeko aukera paregabea” direla dioelarik (Ibidem, 39. or). Ahozko tradizio hori landuz gero, lurralde baten eta lurralde horretako historiako erroak sendotzea eta finkatzea lortuko litzateke, nahiz eta ezinezkoa izango den, orobat, gure arbasoek izandako bizitza hori berriro ere eraiki ahal izatea. Beraz, ahozko tradizio horrekin jarraitzeko aukera ezin hobea da, gure arbasoek utzitako aberastasunaz baliatzea eta horrekin gozatzea eta gozaraztea (Ibidem, 45. or).

Argitze aldera, ahozko tradizioa aipatzean, ahozko literaturaz ere hitz egiten da. Billelabeitia eta Kortazarren (2002, 9. or) esanetan, sinonimotzat hartzen dira “ahozko literatura”, “literatura tradizionala” edo “literatura folklorikoa” eta “herri-literatura” besteak beste. Badirudi kontzeptu orokorra “herri-literatura” edo “literatura folklorikoa” dela, hau mendeko klaseei dagokien literatura izanik, eta bere baliabideak ahozkoak (eta orduan ahozko literaturaz arituko gara) edo izaera desberdineko inprimatuak izan daitezkeelarik. Azken hauek, landa-munduko elite erdiletratuei zuzenduak dira. Hala ere, herri-literatura terminoa beste esanahi batekin erabili izan da. Herrikoia duela gutxi sortutako terminoa litzateke, publikoari aldi batez eskainia, eta denbora horretan bere forma gutxi gorabehera berdina izango da (Ibidem, 10. or).

1.2. Sehaska-kantak

Ahozko tradizioarekin jarraituz, baina oraingoan haurrengan zentratuz, haurrei zuzendutako tradizioan, kanta, hitz-jolas, sehaska-kanta eta beste hainbat testu edo

abesti ditugu (Igerabide, 2003, 45. or). Lan honetan, ahozko tradizioaren barruan, sehaska-kantetan jarriko dugu fokua.

1.2.1. Arloko egoera

Cerrilloren (2007, 2. or) esanetan, sehaska-kanta belaunaldiz belaunaldi ahoz transmititu den abesti herrikoi mota bat da, non haur txikiari esaten zaizkion lehen hitzetako asko aurki daitezkeen. Abesti labur bat da, haurrak urrumatzeko erabiltzen dena eta haurrak loa hartzea helburu duena. Ahotsa, kantua eta urruma edo kulunka-mugimendua elkartzeak sehaska-kantari bere berezitasun adierazgarriena ematen dio (Ibidem, 2. or). Ostera, Tejeroren (2002, 211. or) ustetan, sehaska-kantek haurrari loa eragiteko balio dute eta askotan une magikoa izaten da, estututa eta zapalduta dagoen emakumea lasaitzeko. Menéndez-Ponte eta Sernak (1999, 7. or) berriz, sehaska-kantak emozio kantatuak bezala definitzen dituzte, maitasun eta samurtasun erakustaldi baten legez (Fernandez, 2005, 189. or). Horren bidez, amaren, aitaren eta haurraren artean oso lotura garrantzitsua ezartzen dela aipatzen du; hitzek garrantzi gutxiago dutelarik, sentimendu baten adierazpenak, musikaltasunak eta erritmoak baino (Ibidem, 189. or).

Ikus daitezkeen moduan, sehaska-kantek hainbat definizio hartu izan dituzte denboran zehar, bakoitzak definizioa ikuspegi desberdin batetik bideratzen baitu, nahiz eta autore edo ikerlari guztiak zerbaitetan bat datozen, hots, haurra lokartzeko erabiltzen diren abestiak direla (López, 1984, 629. or).

1.2.2. Terminologia

Sehaska-kantek izendapen desberdinak jaso izan dituzte denbora eta lekuaren arabera. Azkuek (1923/1990, 213. or) aipatzen duenez, izendapen ezagunena sehaska-kantena edo lo-kantena da nahiz eta “dringilindanguak” legez ere ezagunak diren, hau sehaskak egiten duen zarata onomatopeiko moduan hartzen delarik. Bizkaieraz, “uauatxua” moduan ere ezagunak dira, honek umearen negarrari eta umeari berari erreferentzia egiten diolarik eta era berean, “obabatxua” hitza aurrekoaren aldaera bat delarik (Ibidem, 213. or). Hona hemen, azken honi zentzua ematen dion pare bat koplak (Ibidem, 1923/1990, 214. or):

Uaua goxuaren	Uauatxuba (Obabatxua) lo ta lo
altzuan jarriric	Zuc orain eta nic guero
gau baten nenguala	Zuc gura dozu orduren baten
olguraz beterik	Bijoc eguingo dogu lo

1.2.3. Ezaugarriak

1.2.3.1. Literatura

Sehaska-kantek, zenbait ezaugarri berezi dituzte musikaren aldetik eta literaturaren aldetik. Literaturaren aldetik aztertzen hasiz gero, kanta hauetan erabiltzen diren gaiak dira hizpide hainbat autoreren iritzien artean. Arcochak (2017, 96-97. or) aipatzen duenez, sehaska-kanten gaiak askotarikoak dira, baita abesti beraren barruan ere. Askotan inprobisatu egiten dira edo berez abesten dira; beraz, ez da harritzekoa lotura gabeko ahapaldiak, itxuraz zentzurik ez duten esaldiak, beste kantu batzuetako letrak edo ia onomatopeiaz osatutako melodiak aurkitzea (Ibidem, 97. or). Onomatopeiei erreferentzia eginez, Lopezek (1984, 630. or) sehaska-kantetan hiru onomatopeia mota daudela adierazi izan du. Alde batetik, amaren izaerari buruzkoak, bihotzaren taupadak edo odolaren pultsua bezalakoak eta beste aldetik, animalien izaerari buruzkoak. Animalia jakin batzuen antzeko soinuak, hala nola, katuen zurrunga edo txorien kantu jakin batzuk eta azkenik, naturako elementuei dagozkienak, euriaren, haizearen edo zuhaitzen zaratak esaterako. Honen harira, hurrengo ere gehitzen du, hots, soinu onomatopeiko horiek guztiek erritmo eta neurri bat sortzen dutela, forma musikalari beharrezko aire errepikakorra ematen diotena, haurra lozorrora eramateko efektu monotonoa sortzeko asmoz (Ibidem, 630. or).

Sehaska-kantetan lantzen diren gaietara itzuliz, Arcochak (2017, 97. or) dioenez, kantu hauetan hiru gai nagusi identifika daitezke. Lehenengoa loa bultzatzea izango litzateke. Amak loa hartzera gonbidatzen du semea edo alaba, geroagoko sariren bat eskainiz, gehienetan gozoak, behin eta berriz esanez loa sar dakion. Kategoria honetan sar daitezke santuei, Jaunari edo, are gehiago, loari « Santa Loa » deitzen dioten abestiak (Ibidem, 97. or):

Santa loa Santa loa,
Gure aurrari emazu loa
Gaubean gau guzikoa,
Egunez ordu biko.

Bigarrena, amak bere semeari dion maitasuna adierazten duten testuak izango lirateke. Gai hau lantzen dutenak hainbat dira eta batzuetan metaforak erabiltzen dira, hauen bitartez haurrak zenbat balio duen azpimarratzeko. Talde horren barruan, bitxikeria bat identifikatu da, eta, umearen balioa erakutsi nahian, ijitoei buruzko iruzkin arrazista bat egiten da. Edonola ere, adibide isolatua da, egiaztatu ahal izan denaren arabera (Arcocha, 2017, 97. or):

Dingulun dangun petrala	Binbilin bolon
Goazen Alira yaitara.	Gure aur hau,
Yoan den urtean goseak	Balio ditu beste lau
eta Aurten arera zertara?	Eta jito kumeak amalau

Hirugarrena, familia-ekonomiaren etiketaren barruan sar daitezkeen testuak izango lirateke; izan ere, haurrari jaten emateko arazoez, diru-kutxa hutsez eta dirurik ezaz hitz egiten dute. Horietako bat, hain zuzen ere, oso deigarria da; izan ere, aita ez da bakarrik familiaren aurrekontua xahutzen ari tabernan, baizik eta alaba eta ama ere, normalean kantu tradizionaletan etxeko lanak egiten erretratatzeko direnak, tartean sartzen dira. Hemen ikus daitezke pare bat adibide (Ibidem, 97. or):

Aurtxo txikia negarrez dago	Aita-semeak tabernan
Ama emaiozu titia	eta Ama-alabak jokoan,
Aita gaiztoa tabernan dago	Ostera bere izango dira
Pikaro jokalaria	Atorrek zarrak kakoa

Aurreko kopletan erakustera ematen den emakumearen rola, ez da genero honetako rol ohikoena, baina hori aurrerago ikusi ahal izango dugu sakonago.

Sehaska-kantek duten metrika zentratuz gero, askotariko metrika izan ohi dute, baina lau bertsoa ahapaldiak dira nagusi (Silveyra, 2006). Ahozko euskal literaturan, badira metrika desberdinak eta metrika bakoitzari izen bat dagokio (Garzia et al., 2001, 82-92. or). Zortzi sehaska-kanta desberdinetako koplak bana aztertu eta gero hauek dira aurki ditzakegun metriketako batzuk: koplak txikia (7-6A-7-6A), jotarako koplak (8-8-8-8), koplak handiak (10-8-10-8) eta zortziko txikia (7-6-7-6-7-6-7-6). Beraz, ikus daitekeenez, sehaska-kantek ez dute metrika konkretu bat jarraitzen (ikus I. Eranskina).

1.2.3.2. Musika

Musikari dagokionez, Valbuena (2004, 99. or), Frantziako sehaska-kantetan zentratzen da eta kanta hauen hurrengo aspektuak lantzen ditu; erritmoa, melodia, intentsitatea eta pultsoa. Erritmoari dagokionez, pultso bitarra eta hirutarra kulturen arabera aldatu egiten direla dio, kasurik ohikoena 6/8ko konpaseko idazkera izanik. Baina Euskal Herrian ezagun diren sehaska-kantak kontuan hartuz, horietako batzuk erreparatuta, konpasik ohikoenak eta erabilienak, 5/8, 6/8, 3/4 eta 2/4 dira (ikus I. Eranskina). Honek era berean Valvuenak (2004, 99. or) aipatutako pultso bitar eta hirutarrarekin lotura zuzena duelarik. Itxuraz, denbora bitarra egokiagoa da haurraren lehenengo urteetarako, eta denbora hirutarra ostera, hurrengo urteetan zehar erabiltzeko. Dena dela, aipatutako erritmoak kulunkatzeari buruz hitz egiten du, bere esanetan ezinbesteko garrantzia baitu (Ibidem, 99. or). Honen harira, Lópezen arabera, (1984, 631. or) erritmoak musikaltasuna dakar eta musika da haurra besoetan daukala isilik kulunkatzen den emakumearen mugimendua. Izan ere, keinua, kulunka-denbora markatzen eta neurtzen duen barne-musikaltasun bati baitagokio (Ibidem, 631. or).

Melodiari erreparatuz, melodiaren erregistroa edo esparrua laburra izaten da askotan, eta normalean bi pedal-notaren gainean egoten da melodia hori sortua, bitarte bateratuak lehenetsiz. Tonalitateari buruz hitz egiterakoan, ez da tonalitate finkorik erabiltzen, baina normalean eskala modalak erabili ohi dira (Ibidem, 99. or).

Sehaska-kanten intentsitatea aztertuz gero, Valvuenak (2004, 99. or) bokalizazioak ñabardurak edo intentsitateak azpimarratuz egin behar direla aipatzen du, hau da, ahotsaren bolumena handituz eta murriztuz (Crescendo – Decrescendo), hauei etenaldiak gehituz. Honek, beste behin ere, haurra daraman amaren gorabeheraren konnotazio sinbolikoa duela ikus daiteke (Ibidem, 99. or).

Aspektuekin bukatzeko, sehaska-kantek, bihotz-pultsuaren taupadari eutsi behar diela aipatzen da. Pultsua bera, kantariaren bihotz-arnas erritmoan oinarrituta dago. Beraz, tenpoa edo pultsoa, amak eta haurrak ezartzen dute. Bitxikeri modura, logura egoeran, bihotz-erritmoa 72 eta 76 pultsazio ingurukoa da, eta lotan berriz, 50 pultsazio ingurukoa. Azken hau, dimentsio biologikoari dagokio, kulturalari baino gehiago (Ibidem, 99. or).

Crivillék (1983, 310-311. or) ostera, honela aztertzen ditu sehaska-kanten ezaugarriak. Hasteko, bi adierazpen-mota bereizten ditu Espainiako herri-kantagintzan. Alde batetik, erritmo librea duten eta heterometrikoak direnak, melismak eta apaindurak ugari dituztenak; eta bestetik, Europako mota orokortuarekin bat datozen abestiak: oro har, tonu maiorrak eta minorrak nagusi diren abesti diatonikoak dira, musikaren eta testuaren arteko harremana silabikoa eta egitura musikala dituztenak funtsean. Azken talde horretakoak dira gehienbat, sehaska-kantak eta azpimarratzekoak dira, kopuruz, modu maiorraren inguruan antolatzen direnak, orokorrean oso gutxi direla. Doinu horietako askok lauzpabost nota baino ez dituzte, hauek tetratoniko¹ gisa sailka daitezkeelarik. Hala ere, bost nota dituztenak ezin dira pentatoniko² gisa sailkatu, ez baitute egitura horien ohiko antolaketa melodikoa erakusten. Bitxia bada ere, esparru melodikoa oso zabala izaten da, zazpigarren gradua nagusitzen delarik (Arcocha, 2017, 98. or).

1.2.4. Helduaren rola

Sehaska-kantetan, helduaren rola ezinbestekoa da, haur kantutegiko genero bakanetako bat baita, non igorlearen papera heldu batek irudikatzen duen. Hispaniar tradizioan bezala, euskal tradizioan ere, paper hori emakumeek hartu dute beren gain: amek, izebek, amonek eta inudeek, haurrak urrumatzearen funtzioa betetzen dutenek hain zuzen ere, haurraren loa kantatuz eta haren presentzia sentituz (Cerrillo, 2007, 323. or). Arestian aipatutako emakume hauek oro har, haurraren lehen familia-ingurunetik oso hurbil dauden emakumeak dira, eta ama da presentziarik handiena duena. Ama horrek, nekatuta egon arren, lasai abesten dio bere seme-alabari, loa zaintzen duen bitartean. Horretaz aparte, sarritan aurrez aurreko sentimenduak ere adierazten dituzte: samurtasuna eta haserrea, amorrua, urduritasuna eta pazientzia, bakardadea eta

¹ Oktaba baten barruan, lau nota desberdinek osatutako eskala edo musika-modua.

² Oktaba baten barruan, bost nota desberdinek osatutako eskala edo musika-modua.

lagunartea, nahiz eta hauek gehienetan testuan modu inplizituan agertzen diren (Ibidem, 2007, 323. or). Gainera, Tejerok (2002, 211. or) aipatzen duenez, sehaska-kantak une magikoak dira, sekulan estututako eta zapal dutako emakumea lasaitzeko. Hona hemen, ama nekatu batek bere seme-alabaren loari abesten dion sehaska-kanta baten kopia bat (Azkue, 1923/1990, 214. or):

Uauatxuba (Obabatxua) lo ta lo
 Zuc orain eta nic guero
 Zuc gura dozu orduren baten
 Bijoc eguingo dogu lo.

Beste hauetan ostera, amaren haserrea, amorrua eta bakardadea ikus daitezke (Paya, 2013, 133-135. or).

<p>Loa-loa txun txurrun berde loa-loa masusta Aita gurea Gasteizen da, ama mandoan hartuta Aita gureak diru asko du ama bidean salduta</p>	<p>Orain haurra hor lo dago lo egizu aingeruño Nik zu zaitut maiteago zure aitak nihaur baino!</p>
---	---

Gizonezkoaren papera ostera, guztiz desberdina da. Aipamena egiten zaionean, kantuan bertan ageri da, baina kanpotik dabil. Bai bidaian joan delako, bai lanean ari delako, bai etxetik alde egin duelako, esaterako (Cerrillo, 2007, 324. or). Honen adibide argia ikus daiteke hurrengo kopia honetan (Paya, 2013, 133. or).

Haurtxo txikia negarrez dago
 Ama emaiozu titia
 Aita gaiztoa tabernan dago
 Pikaro jokalaria
 Aita jokuan ama lanian
 Hauxe bai negargarria
 Eskerrak zuri lore polita
 Alaitzen duzu etxia

Azken adibide honetan, aurrekoan moduan ere, gizona-zkoaren papera zein den argi ikus daiteke, hau amaren edo emakumezko baten ahotik kontatuta dagoelarik. Aukeratutako adibide hau sehaska-kanta oso bat da, lehenago aipatutako emakumearen eta gizona-zkoaren paperak zein diren argi ikusteko aukera ematen digulako (Zugasti, 1999).

Haurtxo haurtxoa izu egin lo	Haurtxo haurtxoa izu egin lo
hemen nauzu zu zaintzeko	hemen nauzu zu zaintzeko
Izu egin lo, aita urrun da	Izu egin lo, aita preso da
Euskadiren zerbitzuko,	zu bihar libro izaiteko
zure ondoan ama daukazu	egun batian etorriko da
etzaitu inoiz utziko	gu biokin egoiteko

1.2.5. Definizio berri bat

Orain arteko guztia ikusi eta gero, hasieran adituek emandako sehaska-kanten definizioak alderatuta, definizio berri bat proposatuko da. Orduan zer dira berez sehaska kantak? Argi dago haurra lokartzeko helburuarekin erabili direla beti, nahiz eta helburu hori askotan lortu ez, baina horretan saiatzeko behintzat, beste hainbat faktore daude bitartean, edo behintzat orain arte landutakoak hori ulertzera eraman gaitu. Faktore hauek ez dira autoreek emandako definizioen parte, baina sehaska-kantei berezitasuna faktore horiek ematen diete hain zuzen ere. Faktore horien adibide dira pultsoa, melodia eta landutako gaiak besteak beste. Hau horrela, hona hemen sehaska-kanta definitzeko proposamena.

Sehaska-kantak, haurra lokartzeko helburuarekin haurrari berari abesten zaizkion kantuak dira. Hauek, kantuaren arabera, pultso bitarrekoak edo hirutarrekoak izan daitezke eta gehienetan erabiltzen diren esparru melodikoak mugatuak izaten dira. Hitzik gabeko sehaska-kantak ere badaudela aintzat harturik, erabilitako gaiak, gehienetan loa bultzatzeko baita haurraren inguruko gertakariaren bat kontatzeko nahiarekin lotura zuzena izaten dute. Hala ere, momentu hau, ona izango da, helduak barruan duena uzteko eta esan beharrekoa esateko, nahiz eta helarazitako mezuak ez duen haurraren eragin zuzenik izango.

2. Metodologia

Lanak, sehaska-kantei buruzko hurbilketa teorikoa, honek eskoletan duen presentzia ezagutzera emateko inkesta eta elkarrizketa batzuen emaitzak eta gai hori lantzeko materiala eskaintzen duen gida eta web orri baten garapena biltzen ditu.

Hurrengo lerroetan, lanaren faseak aurkeztuko dira.

2.1. Lanaren aurrekariak

Lana, informazio bibliografikoa bildu eta hori irakurtzeko fase batekin hasi zen. Informazio hori aztertu ondoren, beharrezko datuak hautatu eta sailkatu dira, edukia sakon aztertzen hasteko. Horrela, lanak oinarri teoriko sendo eta irmoa du. Gainera, aurretik egindako sehaska-kanten definizioak osatzeko asmoz, definizio berri bat proposatu da.

2.2. Datu bilketa

Lana aurrera eramateko, beharrezkoa ikusi da sehaska-kantek eskoletan duten presentziari buruzko errealitatea ezagutzea. Hori horrela, inkesta bat diseinatu da, 0-3 adin tartean lan egiten duten irakasle eta hezitzaileei zuzenduta eta hau, Uribe-butroeko 10 ikastetxetara bidali da, bertako errealitatea ezagutzeko. Hamar ikastetxetik, 6 ikastetxetako errealitatea ezagutzeko aukera baino ez dugu izan. Ikastetxe horietatik, 16 hezitzaile eta irakasleren erantzunak jaso dira. Inkestaren helburu nagusia, ikastetxeetako irakasleen sehaska-kantei buruzko jakintza eta erabilerari buruzko hurbilketa bat egitea izan da. Behin inkestak aztertzen hasita, jasotako informazioan sakontzeko asmoz, elkarrizketa batzuk egiteko beharra ikusi da.

2.3. Gida eta web orria

Behin inkestak eta elkarrizketak eginda eta aztertzen hasita, behar bat ikusi da. Hain zuzen ere, irakasle eta hezitzaileek sehaska-kantak erabiltzeko informazio eta material falta dutela. Beraz, hori dela eta, alde batetik, gida bat eta beste aldetik, web orri bat sortu dira irakasle eta hezitzaileek informazio hau eskura izan dezaten eta sehaska-kantak gelan erabil ditzaten. Gida eta web orri horiek, hurrengo atalak dituzte; sehaska-kanten definizioa eta helburua, hauen onurak eta garrantzia eta gelan erabiltzeko materiala.

3. Sehaska-kanten presentzia, erabilera eta funtzioak Haur Hezkuntzan

3.1. Galdetegi eta elkarrizketak

Sehaska-kantek Haur Hezkuntzan duten funtzioaren eta erabileraren berri izateko, google forms bidezko galdetegi anonimo bat prestatzea erabaki da, hau Uribe-butroeko 0-3 tarteko irakasle eta hezitzaileek erantzuteko asmoz. Aipatzekoa da, nahiz eta geografikoki Uribe-butroen kokatu, zehatz, Bakio, Mungia, Urduliz, Gatika eta Plentzia herrietako eskola eta haurreskoletako irakasle eta hezitzaileen erantzunak jaso direla. Galdetegia, aipatutako herri hauetan lan egiten duten 16 irakaslek erantzun dute, aipatu bezala, guzti hauek 0-3 etapan lan egiten dutelarik. Galdetegi honen helburua, eskoletan sehaska-kantek duten presentzia eta hauen erabileraren berri izatea izan da, ateratako emaitzak adituek diotenarekin alderatzeko intentziaz. Behin irakasle guztiek galdetegiak beteta, emaitzak aztertzen hasi eta bi perfil mota geratu dira agerian hasiera-hasieratik. Alde batetik, sehaska-kantak erabiltzen dituztenak eta bestetik, erabiltzen ez dituztenak. Aipatzekoa da, emaitza hauek kuantitatiboki aztertu direla.

Galdetegian erabilitako galderetan zentratuz, esan beharra dago, irakasle guztientzako berberak izan direla, nahiz eta perfil bakoitzaren arabera eta beraien erantzunaren arabera, galdera batzuk ez erantzuteko aukera izan duten. Galdera horietako batzuk, galdera irekiak izan dira eta bakoitzak nahi zuena idatz zezakeen, baina beste batzuk ostera, galdera itxiak izan dira eta emandako aukeretako bat edo batzuk baino ezin zezaketen aukeratu (ikus II. Eranskina).

Galdetegiko emaitzak aztertzen jarraituta, arestian aipatutako bi perfil motei erreparatuz eta gaian sakontzeko helburuarekin, bakarkako bi elkarrizketa egiteko beharra ikusi da, alegia, perfil bakoitzeko elkarrizketa bat. Elkarrizketa hauek, ez dira anonimoak izan, izan ere aurrez aurreko elkarrizketak izan direlako, baina datuak ostera, anonimoki erabiliko dira. Aipatzekoa da, inkestan parte hartutako bi irakasleei egin zaizkiela elkarrizketak eta inkestetan erabilitako eremu geografiko berbera eta ezaugarri berberak hartu direla kontuan.

Argitze aldera, inkesta nahiz eta anonimoa izan den, elkarrizketak egiteko beharra ikusi denean, zuzenean ikastetxeekin harremanetan jarri eta elkarrizketa baten parte hartzeko, inkesta betetakoetatik prest nor egongo litzatekeen galdetu da.

Bakarkako elkarrizketak, lau ataletan banatu dira; erabilera, definizioa, oztupoak eta elkarrizketarekin bukatzeko amaitzeko galdera bat, elkarrizketaren iraupena gutxi

gora-behera 20 minutukoa izan delarik. Erabilerari dagozkion ataleko galderak, perfil bakoitzerako propio sortuak izan dira eta era berean, galdetegian emandako erantzunen arabera sortuak. Beste ataletako galderak, bi perfilentzako berdinak izan dira, galdetegian bildutako emaitzetan, atal zehatz batzuetan sakontzeko beharra ikusi delako. Aipatzekoa da, emaitza hauek kualitatiboki aztertu direla (ikus III. Eranskina).

3.2. Emaitzen azterketa

Behin emaitzak batuta, lortutako emaitzak hurrengo hauek izan dira. Inkestan parte hartu duten irakasle eta hezitzaileen adinean zentratuz, berrogei eta berrogeita hamar urte baino gehiagoko irakasleen artean sehaska-kanten erabilpen gehiago egiten dela argi geratzen da, hain zuzen ere % 62,6. Hau zergatik ote? Izan dezake honek lotura zuzenik lanaren lehen zatian aipatutako ahozko tradizioarekin?

Ahozko tradizioa, informazio iturri izugarria izan da herriaren pentsaeran eta baita ohituretan ere. Gainera, esan daiteke, jakituria honen oinarria gurasoengandiko transmisioa izan dela, nahiz eta ahozko tradizioetik etorritako familia transmisio hori aldatu den eta gaur egun ere aldatzen dabilen (Goikoetxea, 2013, 56. or). Are gehiago, Kaltzakortak, transmisioa aldatzen dagoela esan beharrean, transmisioa jada etenda dagoela aipatzen du (Elustondo, 2013, 9. or).

Goikoetxeak (2013, 56. or) aipatzen duenez, ahozko tradizioaren transmisioaren aldaketa honek, ahozko tradizio hori, sarri eskolaren kontu uztea dakar berarekin. Baina ordea, zer gertatzen da transmisio hori eskoletan ere ematen ez bada? Sehaska-kanten gaian zentratuz, badirudi oraindik ere, era batean edo bestean gutxienez, eskoletan erabiltzen direla, baina nola erabiltzen dira? Ahozko transmisioa ematen jarraitzeko, hein batean abestuz erabili beharko lirateke?

Inkestetako emaitzen arabera, % 75k sehaska-kantak erabiltzen dituzte eta beste % 25k ordea, ez. Erabiltzen duten % 75 horretatik, % 41,7k, abestuz erabiltzen ditu, beraz, Goikoetxeak esandakoari jarraiki, transmisio hori familian eten bada eta behar hori eskolen eskuetan geratu bada, hemen hau betetzen dela ikus daiteke. Egia esan, ez dakigu transmisio hori zenbaterainokoa den, egunerokotasunean zentratuz, % 41,7 horretatik, % 16,68 batek baino ez baititu sehaska-kantak egunero abestuz erabiltzen, baina erabiltzen direla eta hein batean transmisio hori ematen dela argi ikus daiteke.

Galdetegia erantzun duten irakasleen artean, erabiltzen dituzten sehaska-kantetan fokua jarriz gero, erantzunak aztertzean ikusi ahal izan da askok sehaska-kanta berdinak aipatu dituztela, “ezagunenak” alegia. Horren adibide ditugu, ahozko tradizioetik bildutako “loa-loa”, “haurtxo polita”, “haurtxo txikia” eta “obabatxua” kantuak. Baina, badira hiru bat irakasle, beste bi adibide eman dituztenak, hain zuzen ere, Olatz Zugastiren “bulun bulunka” bilduma (Zugasti, 1999), “kunkun lolo” abestia (Xirula Mirula, 1984), “egizu lo” bilduma (Igerabide eta Cano, 2005) eta Oskorriren “maitatua sobera” bertsioa (Oskorri, 2007).

Hau ikusita, behintzat gutxieneko ahozko transmisioa egon dela pentsatzera eraman gaitzake. Edo kasualitatea da erantzun gehienak berdinak izan izana? Orain, aipatutako bi pertsonen kasu horri erreparatuz, bai ahozko transmisioa edota aparteko lanketa bat egon dela pentsa genezake. Baina argi dagoena da, transmisio hori gutxitzen doala eta Elustondok (2013, 10. or) aipatu bezala, laster ezin izango dugu, ahozkotasunaren lekukotasunik emango digun pertsonarik aurkitu.

Arestian aipatu izan da, sehaska-kantak erabiltzen dituzten % 75 horretatik, % 41,7k abestuz erabiltzen dituztela. Oraingoan, erabilpen horrek duen eraginaz arituko gara. Gizakiok lehen urteetan, beste animaliekin konparatuz gero, bizirauteko heldu baten beharra izaten dugu eta horrek gure lehen urteetako biziraupena guraso edota zaintzaileengan uztea eragiten du (Diez, 2021, 2. or). Hau berau, sehaska-kantetara ekarriz gero, haurrei eskainitako kantuak, guraso edota zaintzaile arretaren adierazgarri gisa uler daitezke, nagusi batek zaindu eta babestu behar duela ulertzera ematen baitio haurrari (Elustondo, 2013, 10. or).

Hau ikusita, badirudi, haurrari ez diola berbera eskainiko hezitzaile edo irakasleak abestutako horrek edo ezezagun baten ahotsarekin entzundako kantu horrek. Hemen, gure ahozko tradizioaren altxorraz jabetu gaitzake. Hona hemen, Elustondok (2013) Kaltzakortari egindako elkarrizketan, esandakoa:

Garai berriak teknika aldetik aurrerapen izugarriak ekarri ditu, baina gu, ahozkoa ikertzen gabiltzanok, inor baino nostalgikoagoak gara; bizi nahi genuke orain dela laurehun urte, ia-ia Beotibarko guduaren garaian, han zer kontatzen ote zen jakiteko! Edo orain dela hirurehun urte. Edo berrehun urte, Grimm anaien garaian, biblioteka bizien bila abiatzeko. Horixe dugu guk geure ametsik handiena, biblioteka bizien bila joatea. Zergatik? Bada, uste ez duzun kanta batek, ahots bizian entzuten baduzu, askoz ere indar handiagoa dauka, irakurtzen duzun poema batek baino. Ahots biziak haragia, bihotza, odola ematen dio poemari, eta are gehiago mundu hori galdua denean. Orduan, ultratunbatik, hilobitik haragotik datorren ahots bat bezalakoa da... Nire irudipena da, nire begitazioa. (Ibidem, 2013, 10. or).

Kaltzakortak aipatzen duen honetaz, ahozko tradizioaz gain, haurraren eta abestean duenaren arteko lotura ere aipatzen da, ahotsak, zuzenean erabilia duen indarraz hain zuzen ere. Honekin bat, orain dela gutxi egin berri den ikerketa baten emaitzek, haurraren eta sehaska-kanta abesten dionaren artean, uste baino lotura handiagoa dagoela erakutsi dute (Diez, 2021, 2. or). Orain arte, sehaska-kantez aritu garenean, haurraren jarri izan dugu begirada, nahiz eta helduaren papera ere garrantzitsua dela aipatu. Baina ikerketa honek adierazi bezala, sehaska-kanten onurak ez dira bakarrik haurrarentzat, baita kantu hori abesten dion helduarentzat ere. Horren adibide dira bihotz-taupaden beherakadak, begi dilatazioaren txikitzea eta aktibitate elektrodermalaren indargea (Ibidem, 2021, 3. or).

Lortutako emaitzen arabera, sehaska-kantak erabiltzen dituzten % 75 horren erdiak aipatzen duenez, ez dituzte sehaska-kantak haurrak lokarrazteko helburuarekin erabiltzen, baizik eta haurrak lasaitu edo erlaxatzeko. Agian hori da benetan haurra lokarrazteko bidera eramaten gaituena?

Ostera, irakasleei sehaska-kanta bat zer den galdetzerako orduan, nahiz eta haurra lokarrazteko direla nahiko argi izan duten, ez da bestelako erantzunik jaso. Era batean edo bestean, 16 irakasletik 15ek, hau da % 93,75k “haurra lokartzeko erabiltzen den kanta” bezala definitzen dituzte sehaska-kantak. Baina badago irakasle bat, hurrengo definizio hau ematen duena: “doinu, erritmo edo eta bibrazio konkretu bat duten kantak umearen loaldia prestatzeko, loaldian sartzeko edo lasaitzeko”. Beraz, badirudi, lanaren lehenengo zatian definizio berri bat ematerako momentuan, ez gara aipatutako honetatik oso urrun ibili. Lanean zehar ikusi ahal izan den moduan, nahiz eta sehaska-kanten helburuetariko bat haurra lokartzea izan, hori baino ezaugarri eta funtzio gehiago ditu. Beraz, honek zer pentsa ematen dit eskoletan duen funtzio edo erabilera aztertzen jarraituz, aipatu bezala, % 75k sehaska-kantak erabiltzen dituztelako, baina hortik % 68,75k ez dute sehaska-kanten definiziorik eman, ezta dituzten funtzioak zehaztu ere.

Beraz, nahiz eta sehaska-kantak erabili, erabilpen egokia egiten dela esan daiteke? Honek, galdetegiaren emaitzetan lortutako %75 hori birplanteatzera eramaten nau, sehaska-kantak zer diren osotasunean jakin gabe, erabilpen egoki bat egitea zaila baita.

Honek guztiak funtsean, badu zergati bat, eta hau oso nabaria izan da galdetegian baina oraindik gehiago bakarkako elkarrizketetan. Argi geratu da, informazio eta material falta dela eta aipatu bezala, hau oso argi geratu da bai inkestetan, bai bakarkako elkarrizketetan. Irakasleen esanetan, ez dakite berez sehaska-kantak zer diren, nola erabili beharko lirakeen, zertarako balio duten, zein onura dituzten eta horretaz aparte, ez dituzte sehaska-kantak ezagutzen. Egia da, nahiz eta gauza askotan atzera egin dugun, beste askotan ere aurrera egin dugula aitortu beharra dago, eta horri eskerrak, gaur egun, sehaska-kantei buruzko gero eta material gehiago dago bilduta, gero eta bilduma gehiago sortzen ari dira, galtzen dagoen hori berreskuratzeko asmoz. Baina horiek ez dira ezagunak irakasleen artean, nahiz eta inkestetan ikustera eman % 18,75k zenbait bilduma ezagutu eta horiek erabili.

Arazo honi aurre egiteko beharra ikusi da eta horri erantzuteko proposamen bat garatu da. Aipatu beharra dago, galdetegia erantzun duten irakasleen % 75a prest agertu dela arazo honi aurre egiteko.

4. Proposamena

Sehaska-kantek Haur Hezkuntzan duten presentzia, funtzioak eta erabilera aztertu ostean, agerian gelditu da, irakasle eta hezitzaileek sehaska-kantei buruzko jakintza mugatua dutela, ez baitakite hauek zer diren osotasunean, zein onura dituzten, nolako garrantzia duten eta nondik atera ditzaketen, hau da, ez dute materialik eskura. Beraz, hau ikusita, irakasle eta hezitzaileei zuzendutako gida eta web orrialde bat sortu da, sehaska-kantak zer diren, nora erabili behar diren, zein onura dituzten, nolako garrantzia duten eta sehaska-kanten bilduma bat biltzen dituen.

Gidan eta web orrian, informazio berbera aurkitu ahalko da, nahiz eta gida txosten fisiko moduan planteatuko den eta web orria berriz, plataforma digitalen bidez erabili beharko den. Gidan eta web orrian, hurrengo atalak aurki ditzakegu. Hain zuzen ere, sehaska-kanten definizioa eta helburua, hauek dituzten onurak eta garrantzia eta sehaska-kantak erabiltzeko materiala.

4.1. Gida

Inkesta eta elkarrizketetan lortutako emaitzek, irakaslegoari bideratutako gida bat sortzea justifikatzen dute. Gida honek, aipatu bezala, irakaslego guztiarentzako balio

izango du, nahiz eta aurretik sehaska-kantak erabili edo ez. Horrez gain, familiei ere material egokia suerta dakieke (ikus IV. Eranskina).

Gida honen helburua, sehaska-kantei buruzko informazioa eta materiala eskaintzea da, hauek hurrekin erabiltzeko asmoz. Hona hemen helburu espezifikoago batzuk:

- Sehaska kantak erabiltzen ez dituzten irakasleei, erabiltzen hasteko beharrezko informazioa eta materiala eskaintzea.
- Jada, sehaska-kantak erabiltzen dituzten irakasleei, erabiltzen jarraitzeko informazioa eta askotariko materiala eskaintzea.
- Irakasle izateko bidean dauden ikasleei, sehaska-kantei buruzko hurbilketa, beharrezko informazioa eta materiala eskaintzea.
- Familiei, inguruko hurrekin sehaska-kantak erabiltzeko informazioa eta materiala eskaintzea.

Metodologiaren atalean aipatu izan den moduan, gida honek bi atal izango ditu. Bata, sehaska-kantei buruzko informazioa eskainiko duena eta bestea, sehaska-kanten bilduma eta kantuak biltzen dituen. Informazioari dagokionez, sehaska-kanten definizioa, hauen onurak, kanta hauen helburua, hauek duten garrantzia aurkitu ahal izango ditugu.

Sehaska-kanten zerrenda hiru ataletan banatuta dago:

- Sehaska-kanten bildumak: atal honetan, sehaska-kantak biltzen dituzten bederatzi bilduma ikusi ahal dira. Bilduma bakoitzak sehaska-kanta eta bertsiio desberdinak eskaintzen ditu. Atal honetan, hurrengo datuak aurki ditzakegu: materialaren argazkia, egilea, izenburua, argitaratutako urtea, argitaletxea, kantuen zerrenda eta sareetan entzuteko edo eskuratu ahal izateko esteka.
- Sehaska-kantak: atal honetan, aurrean aipatutako bildumetatik kanpo batutako zenbait sehaska-kanta eskaintzen dira. Atal honetan, hurrengo datuak aurki ditzakegu: materialaren argazkia, egilea, izenburua, argitaratutako urtea, argitaletxea, kantuaren izena eta sareetan entzuteko edo eskuratu ahal izateko esteka.

- Ahoz bildutako sehaska-kantak: azken atal honetan, ahozko tradizioari esker, ahoz bildutako sehaska-kantak aurki ditzakegu. Oraindik, bildumetan edota sehaska-kanta solteetan grabatu ez direnak eta galtzeko arriskuan egon ahal izan direnak. Sehaska-kanta hauek, hainbat herritako pertsona nagusien ahotsean daude bilduta eta aipatzekoa da, “ahotsak.eus” webgunetik eskuratu ahal izan direla (www.ahotsak.eus). Atal honetan, hurrengo datuak aurki ditzakegu: kantariaren izen-abizenak, jaiotze lekua eta urtea, kantuaren izena eta sareetan entzuteko esteka.

Gida honetan bildu diren sehaska-kantak ez dira inondik inora Euskal Herrian ezagun diren guztiak, hauek baino askoz gehiago baitaude. Gida honetan, ahozko-tradizioaren transmisioari jarraiki, galtzeko arriskuan egon ahal izan diren zenbait bildu dira guztiak Euskal Herriko tradizioiko kantuak direlarik, bai artista ezagunenak, bai lekuko artistenak.

Batzuentzako, sehaska-kanta asko, aski ezagunak izan daitezke, ahozko tradizioaren bitartez jaso ahal izan dituztelako, baina beste asko oster, ez.

Material hau eskaintzearen helburua, hori gelan erabiltzea da, noski. Baina kontuan izan beharrekoa litzateke, behin ahozko-tradizioaren inguruan hitz eginda, eskaintzen den material hori irakasleak prestatu eta gero hori berak ikasleei zuzenean helaraztea izango litzatekeela gomendagarriena.

Azken finean, sehaska-kanta erabiltzen den helburuarekin erabiltzen dela, haurra lokarrarazteko edo lasaitzeko erabiliko da. Egunean zehar, irakasleek eta familiek horrelako momentuak izaten eta ikusten dituzte. Hori dela eta, material hau gelan erabiltzea, ez da izango puntualki landuko den zerbait, aitzitik, eguneroko errutinaren parte izango litzatekeen zerbait izango litzateke. Honek, ekintza edo material berri hau, haurraren bizitzan modu naturalean sartzea eragingo luke, nahiz eta lo egiteko edo lasaitzeko ekintza moduan planteatu, helburua azken finean berdina izango litzatekeelako.

4.2. Web orria

Web orria, sortutako gida hau zabaltzeko eta bertan eskainitako edukia pertsona gehiagorengana iristeko helburuarekin egin da. Kasu honetan, edukia sarean eskegita dagoenez, materiala edonork erabili dezake. Gainera, modu honetan, materiala partekatzea ez da batere zaila izango, eta horrek, sortutako material hau jende gehiagok ezagutu eta erabili ahal izango du. Hori horrela, gida, web orritik bertatik deskargatzeko aukera egongo da.

Web orri honetan, “kontaktua” izeneko atala aurki dezakegu. Honi esker, erabiltzaileak iradokizunak egin ahal izango ditu, baita zalantzak argitu edota informazio gehiagarria eskatu ere.

Hau horrela, web orri editagarria izango da eta erabiltzaileak egindako iradokizun horiek kontuan hartuta, web orriaren edukia eguneratu ahal izango da. Era berean, gida ere eguneratu eta gida deskargatzeko esteka ere eguneratuko da.

Hona hemen web orriaren esteka: <https://mirenetxebarria12.wixsite.com/sehaska-kantak>

5. Ondorioak

Sehaska-kantak, ikusi ahal izan den moduan eta adituen iritziak kontuan hartuta, ez dira erabili beharke lirakeen beste erabiltzen, ahozko-tradizioaren transmisioari jarraiki. Hein batean, esan daiteke, ahozko tradizio hori galtzeak, genero asko idatzizkora pasatzea ekarri duela. Alde batetik, horrek gaur egun material hori eskuratzeko aukera ematen digu, baina beste aldetik, jakinda hori idatzi daitekeela edo jada idatzita dagoela, ahozko tradizioaren transmisioarekin ez jarraitzea ekar dezake. Hauxe bera dio Bigurik (1990) ahozko literaturari buruz:

Tradiziozko generoek ez dute, edo ez zuten behintzat, idatzizko euskarrien premiarik bere zabalkundea bermatzeko, ahoz aho ikasten eta irakasten bait ziren, nahiz eta, azken finean, horixe izan den tradizio horren galeraren edo heriotzaren eragingarrietako, edo, gutxienez, lagungarrietako bat (73.or).

Guzti hau, gizarteak emandako aldaketaren erreflexua dela esan daiteke. Gizartea aldatzen joan den heinean, gure kultura ere aldatzen joan delako eta horrek lehen hain garrantzitsutzat hartzen ziren aspektu asko, orain bigarren mailakotzat hartzea eragin duelako. Gizartearen aldaketa horren barruan, familien aldaketa ere haintzat hartzen da. Lehen familiak izaten ziren gehien bat ahozko-tradizio hori bizirik mantentzen zutenak. Bigas eta Correig-ek (2000, 46. or) aipatzen dutenez, hizkuntza ingurune jakin batekiko

elkarreraginean oinarrituta garatzen den sozializazio-modu bat da. Beraz, argi dago familia inguruneek eta haietan sortzen diren elkarreraginek ondorioak izango dituztela haurren komunikazio-gaitasunean. Eta berdina ahozkoarekin, hau da, familiek haurrei transmititutakoaren arabera, horrek ondorio batzuk edo beste izango ditu.

Ahozko tradizioaren transmisioaren kontua eskoletara ekarriz, familietan honek izan duen beherakada kontuan hartuta, tradizio hori transmititzeko papera eskolek hartu beharko lukete. Hau txiki-txikitatik eskainiz eta egunerokotasunean landuz. Horrek, modu batean edo bestean, haur guztiek ahozko tradizioaren transmisio hori jasotzea ekarriko luke.

Proposatutako definizioari tartetxo bat eskainiz, autoreek emandako definizioak aztertzerakoan, definizioaren eta ezaugarrien arten banaketa bat egiten dutela ikusi ahal izan da. Hau horrela, sehaska-kanta, kantu batek barnean izan ditzakeen eta lanean zehar aztertutako ezaugarriek egiten dute, beraz, ezaugarri horiek definizioaren parte izan beharko lirateke eta proposatutako definizioan horrela egin da.

Egindako inkesten arabera, sehaska-kantak berez eskoletan ezagunak direla baina hauek erabiltzeko materialik eskura izan ez dutela ikusi ahal izan da. Sehaska-kanta terminoa ezaguna izan da guztientzat, baina ordea, ez praktikara eramateko momentuan.

Aipatu bezala, baliabide eta material gutxi ezagutzen dira, eta horrek, beste arrazoi batzuen artean, sehaska-kantak gelan ez erabiltzea eta erabiltzekotan, momentu puntualetan erabiltzea eragiten du.

Lan honetan eskaintzen den gidak, irakasleek, haurren inolako errutinarik aldatu gabe, haurren loaldirako materiala eskaintzen du. Honek, arestian aipatu bezala, ez du momentu puntual batean erabiltzea eragingo, baizik eta haurren etapa osoan eta askoz gehiago, egunerokotasunean sartuko den praktika bat izango da.

Gida honi esker, irakaslegoak material baliagarri bat izango du, egunerokotasunean sehaska-kantak erabiltzeko eta ahozko-tradizioaren transmisioari bidean laguntzeko.

Ez dago sehaska-kantak erabiltzeko modu bakar bat edo modu egoki bat. Honen funtsa, haurren eta helduaren dituen onurak benetan ematen direla ikustea eta

ahozko-tradizioaren transmisioari ekitea izango da. Era berean, eskaintzen den gida eta web orrian agertzen den informazioa eta materiala ez da bakarra, hau da, hor informazio labur bat eta material finko bat eskaini da, hots, ahozko-tradizioaren transmisioan galtzekotan egon ahal izan diren kantuen bilduma bat, guzti hauek Euskal Herriko tradizioko kantuak direlarik, bai artista ezagunenak, bai lekuko artistenak.

Funtsean, sehaska-kanten erabileraren bitartez, haurrenganako eta loaldian lagunduko duen helduarekiko hainbat onura lor ditzakegu, baita beraien arteko lotura hori sendotu ere. Era berean, ahozko-tradizioaren transmisioa ere emango da eta horren bitartez, hiltzear dagoen generoa suspertuko litzateke.

6. Erreferentzia bibliografikoak

Ahotsak.eus: Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea. (d.g.). 2022ko maiatzaren 11n eskuratua hemen: <https://ahotsak.eus/>

Arcocha, E. (2017). Lo kantak: nanas, entre pervivencia y olvido. *Ankulegi. Revista de Antropología Social*, (21), 93-101.or.

Bigas, M. eta Correig, M. (2000). Didáctica de la lengua en la educación infantil. Síntesis.

Biguri, K. (1990). Euskal ahozko literatura tradizionalari buruzko ikerketa XX. mendean. *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, 24 (1), 63-92.or.

Billelabeitia, M. M., eta Kortazar, J. (2002). *Euskal baladak eta kantu herrikoiak*. Atenea.

Cerrillo, P. C. (2007). Amor y miedo en las nanas de la tradición hispánica. *Revista de literaturas populares*, (2), 318-339.or.

Crivillé, J. (1983). *Historia de la música española. 7. El folklore musical*. Alianza.

De Azkue, R.M. (1923/1990). Cancionero popular vasco. Euskaltzaindia.

Diez, I. (2021). Sehaska-kanten gaitasun unibertala. *Zientzia Kaiera*, 1-5.or. 2022ko maiatzaren 11n eskuratua hemen: <https://zientziakaiera.eus/2021/02/17/sehaska-kanten-gaitasun-unibertala/>

Elkar argitaletxea musika. (2020ko martxoaren 17a). *Egizu lo - Lotarako kantak - Osoa - Full Album*. [Bideoa]. <https://www.youtube.com/watch?v=vBVdHjdb598&t=4s>

- Elustondo, M. A. (2013). Jabier Kaltzakorta: "Ahozkoa ikertzen gabiltzanok inor baino nostalgikoagoak gara". *Administrazioa euskaraz*, (82), 6-10.or.
- Fernández, A. M. (2005). Canción de cuna: arrullo o desvelo. *Anales de la antropología*, 39 (2), 189-213.or.
- Garzia, J., Sarasua, J., eta Egaña, A. (2001). *Bat-bateko bertsolaritza: gakoak eta azterbideak*. Bertsozale Elkarteak: Bertsolari liburuak.
- Goikoetxea, U. (2013). Gotzon Garate. Tradiziotik modernitatera III. *Euskalingua*, (23), 55-65.or.
- Igerabide, J.K. (2003). Haur poesia eta ahozko tradizioa. *Sancho el Sabio*, (18), 39-50.or.
- Larzabal, I. (1989). Muga beroetan (1.edizioa). [CD-ROM]. Donostia.: Elkar
- Lertxundi, A. (1996). Tradizioa, idazlearen kale kantoitik. *Euskera - XLI (2. aldia)*, 861-872.or.
- López, A. E. (1984). Símbolo y realidad en la canción de cuna. *Revista Internacional de Sociología*, 42 (51), 629-635.or.
- Menéndez-Ponte, M., eta Serna, A. (1999). *Duérmete niño. Antología de nanas*. SM edizioa.
- Mitxelena, K. (1960). *Historia de la literatura vasca*. Erein.
- Ormaetxea, N. (1927). Euskal literaturaren atze edo edesti laburra. *Euskal-Esnalea*. 283 (288), 246-263.or. 2022ko maiatzaren 11n eskuratua [hemen: https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DKPAzokoPrensaWEB/argitalpen/176957/data/-1328140800000](https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DKPAzokoPrensaWEB/argitalpen/176957/data/-1328140800000)
- Paya, X. (2013). Ahozko Euskal Literaturaren Antologia. Etxepare.
- Ramírez, N. (2012). La importancia de la tradición oral: El grupo Coyaima-Colombia. *Revista Científica Guillermo de Ockham*, (10) 2, 129-143.or.
- Sarasola, I. (1971). *Euskal literaturaren historia*. Lur.
- Silveyra, C. (2006). *Biblioteca virtual Miguel de Cervantes*. 2022ko maiatzaren 11n eskuratua [hemen: http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/durmete-mi-nio-recuperando-nanas-0/html/02398254-82b2-11df-acc7-002185ce6064_2.html#I_0](http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/durmete-mi-nio-recuperando-nanas-0/html/02398254-82b2-11df-acc7-002185ce6064_2.html#I_0)
- Tejero, E. (2002). La canción de cuna y su función de catarsis en la mujer. *Didáctica (Lengua y Literatura)*, 14, 211-232.or.

- Valbuena, G. (2004). Conocimiento del niño a través de la música: el efecto berceuse acunamiento y canciones de cuna en diversas culturas. *El artista*, (1), 92-105.or.
- Villasante, L. (1961). *Historia de la literatura vasca*. Sendo.
- Xirula Mirula. (2015eko urtarrilaren 19a). *Kunkun Lolo* [Bideoa]. <https://www.youtube.com/watch?v=7NHCnuh2pcA>
- Zugasti, O. (1999). *Bulun bulunka* (1.edizioa). [CD-ROM]. Donostia: Elkar.